

IRUZUR AKADEMIKOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARTE EDERRETAKO FAKULTATEKO IKASLEEN HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK KUDEATZEKO PROTOKOLOA

Sarrera

Iruzur akademikoari buruzko Arte Ederretako Fakultateko ikasleen faltak eta zehapenak kudeatzeko prozeduraren inguruko protokolo hau, 2026ko uztailaren 13ko Fakultate Batzordera aprobatzera eramaten da, irakasleak gero eta kezkatuago daudelako jarraian deskribatuko diren egoerak areagotzeagatik:

- Ikasleek lan berberak erabiltzea hainbat irakasgai gainditzeko.
- Plagioaren presentzia etengabea da lan akademikoetan bere modu ugarietan.
- Edozein motatako ebaluazio-probetan eta edozein euskarri edo gailutan (txuletak, testuliburuak, azterketa-orriak saiokoa ez den kodearekin, liburuetak oharak) baimendu gabeko materiala erabiliz egindako kopia.
- Gailu elektronikoez baliatzea ebaluazio-probak egiteko, probaren ardura duen irakasleak baimentzen ez duenean.
- Beste lankide batzuen (TFG, TFM edo bestelakoak) lan plastikoak lapurtzea, beren kabuz aurkezteko.
- IA erabiltzea irakasgaiaren berezko gaitasunak maskaratzeko, eta, beraz, irakasgai bakoitzerako irakaskuntza-gidek ezartzen duten lege-esparrutik harago.
- Bestelakoak.

EHUren lege-esparrua

Kasu horietan EHUn aplikatu beharreko lege-esparrua honako hau da:

- UPV/EHUko ikasleen hutsegiteen eta zigorraren araubidea: <https://www.ehu.eus/eu/web/gardentasun-ataria/ikaslegoaren-falta-eta-zehapenen-arautegia-diziplina-prozeduraren-arautegia-eta->

[bizikidetzaren-arautegia](#)

- UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa: https://www.ehu.eus/documents/1910592/31133248/2021_07_31_plagio_protokolo.pdf/36c24125-aad4-fef1-95c6-9493eb880606?t=1627750268348
- UPV/EHUko ikasleen diziiplina prozeduraren arautegia: <https://www.ehu.eus/documents/10707338/31966924/DIZIPLINA+PROZEDURAREN+ARAUTEGIA.pdf/ea1e5e9c-d6e9-0bc7-279f-7296f1ab0bc4?t=1698238766324>

Aipatutako bigarren lege-esparruan, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloan, honako hauek dira ebaluazio-probetan eta lan akademikoetan praktika deszintzoak edo iruzurrezkoak egitearen ondorioak:

- Kalifikazioan: suspentsoa jasoko dute eta 0,0 puntuazioa. Salbuespenez, irakasle arduradunak beste kalifikazio bat ematea erabaki ahal izango du, arrazoiturik, baldin eta uste badu ustezko iruzurra edo debekatutako jokabidea arina edo garrantzi gutxikoa izan dela, eta ez duela eragin handiegirik izan probaren emaitzan.
- Diziiplina espedientea: inguruko zirkunstantzien arabera, azaldutako jokabideak jo ahal izango dira diziplinazko arau hauste arintzat, ez hain larritzat edo larritzat, Diziiplina Akademikoaren Arautegiko 5. artikulua arabera, eta diziiplina espedientea irekitzea ekarri ahal izango dute. Errektorearen eskumena da zigorra ezartzea. Edozelan ere, proportzionaltasun printzipioari jarraituz, zigorra neurritzkoa izango da, eta arau hauste bakoitzaren inguruabarren arabera.

Ikastetxearen jarduera-protokoloa, iruzur akademikoari lotutako hutsegite larrien edo oso larrien kasuan

Aurreko lege-esparruarekin bat etorritz, protokolo honek berresten du irakasgaiaren kalifikazioaren berehalako ondorioa balioetsi eta hartzen dutela iruzurrezko egitatea detektatzen duten irakasleek. Dokumentu honek proposatzen du, hemendik aurrera, araudiak proposatzen duen diziplina-espedientea irekitzeko aukera kontuan hartzeko bidea, bai ikasleentzat bai irakasleentzat bermea izan dezan:

- Hutsegite oso larrien kasuan, zehapena jasotzeko proposatzen den iruzurrezko gertakaria Fakultateko dekanuari jakinaraziko zaio, gorabeheraren frogak erantsiz, eta hark Fakultateko Erreklamazio eta Bizikidetza Batzordeari igorriko dio, kasua azter dezan eta zehapen-proposamena balora dezan. Ostera, EHUKo Idazkaritza Nagusiari igorri ahalko zaio berezko eskaria.
- Hutsegite larrien kasuan:
 - Zehapena jasotzeko proposatzen den iruzurrezko gertakaria Dekano-taldeari jakinaraziko zaio eta artxibatu egingo dira hutsegitearekin zerikusia duten irakasleek aurkeztutako frogak. Ikasleak hutsegitea egiten duen lehen aldian izango balitz, pertsona horrek araudian ezarritako kalifikazioan jasoko luke ondorioa, eta irakasleek lehen ohartarazpena egingo liokete, bere jokabidea errepikatuz gero, bere jarrerari espedientea irekitzeko eskatuko zaiola ohartaraziz.
 - Dekano-taldeak ikaslearen iruzurrezko jokabide errepikatuaren berri izanez gero, ikastetxeko dekanuari jakinaraziko zaio, Erreklamazio eta Bizikidetza Batzordea bil dezan, kasua azter dezan eta zehapen-proposamena balora dezan. Ostera, EHUKo Idazkaritza Nagusiari igorri ahalko zaio berezko eskaria. Ebidentzia frogaz bezala bere iruzurreko jarrera errepikatuaren ebidentziak erantsiko zaizkio.

Azken batean, Dekanotza-taldea, bere gordailu instituzionaletan, iruzurrezko egitatearen frogen zaindegia izango da. Gertakariak detektatu zituzten irakasleei gomendatzen zaie horiek ere gordetzea. Froga horiek ikastetxeko Erreklamazio eta Bizikidetza Batzordeak aurkeztu eta baloratu beharreko ebidentzia gisa alegatu ahal izango dira espedienteak irekitzea eskatzeko.

Hortaz, iruzurreko gertakarien berri emateko, honako hauek izango dira harremanetarako dekanordeak:

- Ikasketen Antolamendukoa
- Kalitate eta Berrikuntzakoa

Kontuan hartuta ikastetxeko Erreklamazio eta Bizikidetza Batzordean ikasleen, irakasleen eta TKAZELEN ordezkariak daudela, haien deliberamendua erabakigarria izango da espedienteak irekitzeko aukera kontuan hartzeko, baita ikasketa-iruzurreko kasuetarako ere, horien izaeraren arabera hutsegite larriak edo oso larriak izan baitaitezke.